

ASTEARTEA

2021/12/21
9. urtea, 1.525. zenbakia
107.6 fm
Ataria.eus
URTEKO HARPIDETZA KUOTA: 83 €

Eskualdeko pilotariak azken lau postuetan

Azken jardunaldiko partidak galdu dituzte; Elizegi promozioan maila onean ari da // **7**



Ostiralean egin zuten lbarran, aurtengo Galtzakomik lehiaketako irabazleen sari banaketa. IRATISAIAR

Aurtengo Galtzakomik parte hartzaileena izan da

325 komiki jaso dituzte lehiaketaren 14. edizioan, iaz baino 74 gehiago; 17 urtetik gorakoen mailan Leire Carballo donostiarrak irabazi du, Zizurkilgo oilasko jokoaren inguruko umorezko lanarekin // **4-5**

Udalak Azoka Lagunak egitasmoaren balantze baikorra egin du

Ia 2.000 pertsonako komunitatea osatu dela azaldu du Tolosako Udalak; ordenantza berria eta digitalizazioa landuko dute 2022 urtean // **2**

«Martutenen eskualdeko preso bakarra dago»

ANAJE URKOLA ETA KARMELE ELIZARAN
TOLOSAKO SAREKO KIDEAK

Oraindik pauso asko eman behar direla azaldu dute, datozen egunetarako deialdietara gonbidatuz // **3**

943 593 777 Andoain

Iragarki hau ekarri eta %5eko deskontua gabonetako gozoetan.

Azoka Lagunak-ek ia 2.000 pertsonako komunitatea osatu du

Iaz hasitako egitasmoaren balantze baikorra egin du udalak, eta herritarrak gonbidatu ditu izena ematera; azoka berezia egin zuten larunbatean, postu gutxiagorekin

Iñigo Terradillos Gaztañaga
Tolosa

Tolosako azoka udalarentzat alor estrategikoa izan da azken legealdiotan, eta azoka bera indartzea helburu nagusien artean duela azaldu du. Helburu horrekin sortu zen pasa den urteko urrian Azoka Lagunak egitasmoa, eta urtebete geroago, lortutako emaitzen balantzea «bikaina bezain baikorra» dela esan du Tolosako Udalak.

2.000 PERTSONA, URTEBETEAN

Lehen hilabeteen, 1.500 pertsonak eman zuten izena, eta pixkana zifra hori handituz joan da, urtebeteen ia 2.000 laguneko komunitatea eratzeraino. Herritar askoren interesa piztu duen egitasmoa izan dela azaldu du Nerea Letamendia Merkataritza, Feriak eta Turismo Saileko zinegotziak. «Hori da hitz gakoetako bat, hain zuzen: interesa. Urtaro, baratze, jaki eta sukaldaritzaren inguruko jakintza partekatzen dugu komunitatean, eta informazio hori interesgarria eta erabilgarria da guztientzat. Uste dut horrek aukera eman digula azokari buruz dugun ikuspegia aldatzeko eta balioan jartzeko».

Astero azokaren inguruko informazio baliagarria bidaltzen zaie posta elektronikoz komunitateko kideei eta tarteka ikastaro edo irteerak ere egiten dira, onli-



Gabonetako azoka berezia egin zuten larunbatean, Tolosan. I.S.A.

ne edo presentzialki, jende ugariaren parte hartzearekin.

URRATS GEHIAGO

Letamendiak adierazi duenez, Azoka Lagunak egitasmoa Tolosako azoka indartzeko epe-luzera begirako estrategia ere bada, «eta astez astez komunikazio lan horretatik harago, ekintza gehiago ere biltzen ditu».

Marka berria izan zela aldaketaren abiapuntu nagusia gogoratu du zinegotziak. Horren adibide dira egin dituzten hainbat aldaketa: ekoizleen erakusmahaietako mantelak iruditegi berrira egokitu dira, baita ekoizle bakoitzaren datuak biltzen dituen mahai gaineko fitxak ere. Azken hauetan QR kode bat ere erantsi dute, ekoizle bakoitzari buruzko informazio gehigarria

duen webguneko atalera bideratzen duena.

Hain zuzen, azken hau da webguneko moldaketa garrantzitsua, azokako hiru espazioen planoak jartzearekin batera. Ekoizleak «gehiago gerturatu eta ezagunago egiteko asmoz», postuen deskribapena, produktuen zerrenda, baserriaren kokapena, argazkiak eta harremanetarako datuak biltzen dituen orrialdea sortu dute bakoitzarekin.

Letamendiak nabarmendu duenez, pandemia garaian ere «apustu irmoa» egin du udalak azokaren alde: «Lan mardula egin dugu azokaren eraldaketa fisiko zein digitala sustatzen jarraitzeko».

Normaltasun egoerara itzulterako azokako espazioen antolaketa berrirako proposamena landu dute azokagileekin eta 2022an azokaren ordenantza berria garatuko dute. Horretaz gain, azokaren digitalizazioarekin aurrera egiteko Next Generation Europar Funtsetara proiektua aurkeztu duela udalak diru laguntza jaso asmoz adierazi du zinegotziak.

IRAGARKI LABURRAK

Salgai

Txerriak. Apotea, zerramak eta sei hilabete inguruko txerrikumeak salgai. Interesatuak deitu 607 668 603 (Joxe Kruz) telefono zenbakira.

547 positibo atzeman dituzte Tolosaldean azken astean

Intzidentzia tasa ikusita Villabona eta Zizurkil arteko San Silvestre lasterketa, Ero-Etxe Krosa eta Adunako Eguberrietako egitaraua bertan behera utzi dituzte

Erredakzioa Tolosa

Osasun Sailak emandako azken datuen arabera, abenduaren 13tik 19era 547 positibo atzeman dituzte, eta azken egunean 48 izan dira: Tolosan 19, Amasa-Villabonan eta Zizurkilen 6na, Alegian, Berastegin eta Ibarra 3na, Anoetan eta Asteasun 2na eta Alkizan, Amezketan, Bidania-Goiatzen eta Orendainen bana.

Altzo, Baliarrain, Hernialde eta Oresan ez da positiborik izan azken astean, eta eremu berdean daude intzidentzia tasari erreparatuta. Gainerako herriak, eremu gorrian daude. ESLe dago-kienez, Tolosaldekoa nahiz Alegiakoa, Ibarra, Tolosakoa eta Villabonakoa gorrian daude, 1.500etik gorako tasarekin.

Araba, Bizkai eta Gipuzkoan 14.928 positibo atzeman dituzte

azken astean, eta herenegun, 1.607 positibo berri atzeman zituzten. 324 pertsona daude ospitaleratuta, eta 105 pertsona daude ZIUetan.

Azken 14 eguneko intzidentzia tasa 1.179koa da. COVID-aren eraginez 38 pertsona hil dira azken astean azaldu du Osasun Sailak.

BERTAN BEHERA

Osasun larrialdia dela eta hainbat ekitaldi bertan behera uzten ari dira. Villabona eta Zizurkil arteko San Silvestre lasterketa ez egitea erabaki dute Zunbeltz eta Urkamendi elkarteetako kideek. Urtarrilaren 23rako aurreikusita zegoen Tolosako XXXIV. Ero-Etxe Krosa ere bertan behera utzi dute eta Adunako Udalak Eguberrietarako antolatutako ekitaldiak ez ditu egingo.



LAN BALDINTZA DUINAK

Tolosako Carrefour Market saltokiko langileek protesta egin zuten atzo; lau orduko lanuztea eta elkarretaratzea ere egin zuten. ELA sindikatuak txartzat jo du 2019an argitaratutako hitzarmen kolektiboa. Sindikatuak esan du 2021 urtean zehar hainbat eskaera luzatu dizkiotela enpresari baina enpresak ez duela ezer egin. Esaterako, abenduaren 24an eta 31n lehenago ixtea eskatu diote, baina ez dute erantzunik jaso. E.M.



2022^{ko}
MAHA
EGUTEGIAK
ESKURAGARRI

PASA ZAITEZ BILA

San Esteban auzoa, 20, Tolosa

Jon Miranda – Eneritz Maiz

Tolosako Sare herritarrak argazki jendetsua egin zuen larunbatean, Zerkausian, egunotarako antolatutako ekitaldietarako deia zabaltzeko. Batetik, urtarilaren 8an Bilbon egingo den manifestaziora animatu dituzte herritarrak. Horren aurretik, ordea, *Elkarbizitzarako. Bakerako. Etxerako bidean* lelopean, hilaren 24an, 18:45ean manifestazioa egingo dute Tolosako Triangulua plazatik hasita. Hilaren 26an, 13:00etan, Donostiako epaitegitik abiatuko den manifestaziorako deia egin dute, eta urteko azken egunean topa egingo dute, Trianguloan, azken ostiralararekin bat eginez, 18:00etan. Bilboko manifestaziora autobusez joan nahi dutenek Amaiur tabernan eta Xirimiri kafetegian eman beharko dute izena.

**Argazki jendetsua atera zenu-
ten. Kontentu zaudete jasota-
ko erantzunarekin?**

Anaje Urkola. Tolosarren artean eta baita gure eskualdean ere presoen aldeko sentsibilizazio maila handia dagoela sumatzen dugu. Honelako ekimenetan gainera oso kontentu gelditzen gara jendeak maitasun handiarekin adierazten digulako gai honekin sentsiblea dela, aldaketa nahi duela eta behar dugula.

**Sare herritarretik nola baloratzen dituzue espetxe politika-
ren inguruan eman diren az-
keneko pausoak?**

Karmele Elizaran. Balorazioa positiboa da, baina koma artean. Urrunketa bukatu da, baina hori ere koma artean. Oraindik preso guztiak ez daude Euskal Herrian, baina senideen artean lasaitasuna sentitzen dugu. Asteburu batean 200 kilometro egitea edo 1200 kilometro egitea aldea dago. Positiboa da, baina ez da bukatu eta bakarrik hasi egin da. Horregatik da aurtengo leloa *Etxerako bidean* jarri behar ditugula. Horretarako pauso asko eman behar dira.



JON MIRANDA

«Oraindik preso erdiak baino gehiago Euskal Herritik kanpo daude»

ANAJE URKOLA ETA KARMELE ELIZARAN TOLOSAKO SAREKO KIDEAK

Tolosako Sare herritarrak argazki jendetsua atera zuen larunbatean, eta 'Elkarbizitzarako. Bakerako. Etxerako bidean' lelopean antolatu dituen ekitaldietan parte hartzera deitu du

Pausoak eman bai, baina nahikoa ez dira hortaz?

Urkola. Hori da. Arindu handi bat hartu dute familiarrek-eta, astero-astero egin behar den kilometro pila hori kriminala delako. Gerturatzeak sekulako arindua eman du. Komunikabideetan batzuetan ematen du bukatu dela, baina oraindik preso erdiak baino gehiago Euskal Herritik kanpo daude. Horiek gutxien-

gutxienez Euskal Herriko presondegietan egon beharko lukete, eta asko eta asko gainera kalean.

Zein neurri aplikatzen zaizkie bereziki euskal presoei?

Elizaran. Bereziki aspaldiko salbuespeneko araudia aplikatzen zaie. Orain dela gutxi Unai Fano lortu zuen espetxeko juntak 3. gradura pasatzea, baina Audientzia Nazionalera joan zen

eta 2. graduan dago berriz. Beraz, salbuespeneko lege hau bertan behera utzi behar dugu. Ez dugu eskatzen ezer gehiago. Soilik eskatzen dugu beste presoek daukatena aplikazitea. Adibidez, Antton Troitiñok, hogeita hamar urte pasa ditu kartzelan, eta azkenean hil egin da. Oraindik pauso asko daude emateko, eta horregatik *Elkarbizitzarako. Bakerako. Etxerako bidean* kanpaina berria.

Urkola. Eskualde honetan hamar preso politikoetatik bakarra dago Martutenen. Beste bederatzia ikusi ahal izateko, Soriara edota Asturiasera joan behar da. Oraindik kilometroak egin behar ditugu, eta hori salbuespen lege-di bat aplikatzearen ondorioa da. Eskubide urraketa argi eta garbia egiten du gobernu honek. Gizar-

teak gehiago ezin du esan, eta eragileak, norbanakoak, denak daude jada esaten honekin bukatu egin behar dela. Ez dauka zentzurik.

Elizaran. Bizikidetzatza eta bakea nahi baldin baditugu, bukatu egin behar da, bestela gezur bat da hori esatea. Askotan entzuten dugu bizikidetzatza aurrera eta atzera, baina honekin ez baldin badugu bukatzen, ez dago ezer. Presoek beren neurriak eta legeak izan behar dituzte, baina preso arruntek bezala, berdin berdina. Ez dugu gehiago eskatzen.

**Presoen eta beren senitarte-
koen urraketa hauekin amaitzeko neurri berriak hartu behar direla diozue. Norbanako bezala zer egin daiteke?**

Urkola. Egiten ari garen bezala indarrak batzea, eta egiten diren deialdietan gizarteak hori erakusten du. Gizarte honek oso argi utzi du gai honekin sentsible dagoela, eta bukatu nahi duela. Gu normalki eskatzen dugunarekin beteta edo aseta geratzen gara, gizarte aldetik erantzuna bikaina izaten delako. Urtarrilaren 8an ikusiko dugu nola berriro ere Bilboko kaleak beteko diren. Jendea benetan bihotzetik eskatzen eta aldarrikatzen ari da hau bukatu dadila. Egiten duguna ondo dago, baina gero eta gehiago egin hobea da. Presio gehiagorekin aldaketa gertuago dago.

Elizaran. Guk bakarrik, hau da, Sarek bakarrik ezin du ezer egin. Honaino iritsi baldin bagara, herritarrekin izan da. Herritarren presioa, herritarren gogoia eta babesa izan ditugu. Guk bakarrik ezin dugu egin. Denon artean egin behar dugu bidea eta denon artean etxeratu behar ditugu. Eta azkenean denon artean lortuko dugu Euskal Herrian presorik gabe egotea.

Urkola. Norabidea hau da, pausoak gero eta gehiago izatea nahi dugu, eta gure aldetik presa dago berandu gabiltzalako.



GABONETAKO EKINTZAK

Abenduak 27, 28, 29, 30
Irudimen eta arte tailerrak
Munduko jolasak
Zirko tailerra
Ipuin kontalariak

Informazio gehiago:
@oriamerkatarielkartea
@oriamerkatarielkartea



Eskatzi, argi, hiru orain



Komikigile onenek eskuartean dituzte sariak

Ostiralean egin zen Galtzakomik lehiaketaren XIV. edizioko sari banaketa; aurten, 325 lan jaso dituzte, inoizko zifrarik handiena

Irati Saizar Artola Ibarra

Euskarazko komikigintza eta sormena sustatzea helburu duen Galtzakomik lehiaketaren XIV. edizioa iritsi da bere amaierara. Ostiral iluntzean egin zuten sari banaketa ekitaldia, Ibarako San Bartolome plazan. Lan gehien jaso dituen edizioa izan da aurtengoa: 325 lan jaso dituzte guztira, iaz baino 74 lan gehiago.

Euskara hutsean antolatzen den Euskal Herriko lehiaketa bakarra da Galtzakomik. Galtzaundi Euskara Taldeak antolatzen du, eta haien ustez, «adierazpide artistiko horretan bidea egin nahi duenari aukera bat eskaintzeko aukera proposa da». Euskal Herri osotik jaso dituzte aurtengo lanak.

Epaimahai lanetan Yurre Ugarte idazlea, Unai Gaztelumendi marrazkilaria, Iñaki Martiarena *Mattin* marrazkilaria eta Pili Aguado ilustratzailea aritu dira. Ostiraleko ekitaldian, Oize-

der Mayo aurkezleak gidatu zuen saioa eta epaimahaiak hautatutako 15 sariak banatu zituen. Sarituetako batzuk ez zuten bertan egoteko aukerarik izan, konfinamendua tarteko, baina gurasoek jaso zituzten etxean geratu ziren gaztetxoek sariak. Sariez gain, sarituak izan ez diren parte hartzaile guztien artean Mahala baserriko produktuez osatutako bi saski zozketatu zituzten, eta Satha Nahikari Amintarrila Gonzalez eta Eneko San Milan Olano izan ziren saskia etxera eraman zutenak.

Lehiaketan aurkeztutako komiki guztiak ikusteko aukera ere jarri dute. Ibarako kultur etxeko areto nagusian aurki daitezke, abenduaren 30era bitartean. Lehiaketaren babesleak honakoak dira: Ibarako Udala, Xabiroi aldizkaria, Mahala, Tamayo denda, Ibarako merkatarien elkarte, Danon Txokoa eta Eguzkilore tabernak, Babel liburu denda eta Elkar megadenda.



XIV. Galtzakomik lehiaketara aurkeztu dituzten lan guztien erakusketa jarri dute Ibarako kultur etxean. I.S.A.

IRABAZLEAK

17 urtetik gorakoak

1. saria. *Gaurko menua*, Libe Carballo Aranburu. Saria: 700 euro eta Danon Txokoa bilagunentzako afaria.

2. saria. *Txipiroikeriak*, Pablo Azurza Garikano. Saria: 300 euro eta Eguzkilore tabernan afaria bilagunentzat.

13-16 urte bitarte

1. saria. *Ametsa*, Aitor Aristi Imaz. Saria: 200 euro eta komiki bilduma.

2. saria. *Egun goibel bat*, Eider Beraza, Irati Cristobalena, Maddi Gastesi. Saria: 100 euro eta komiki bilduma.

Aipamena. *Maitasuna besterik ez*, Paula Ansoarena Irizar. Saria: komiki bilduma.

Aipamena. *Surflari baten bizimodu*

dua, Jon Andueza. Saria: komiki bilduma.

Ibarako onena. *Lurrera bidaia*, Zuhara Garmendia. Saria: Ibarako merkatarien oparia eta komiki bilduma.

10-12 urte bitarte

1. saria. *Zortziko sugea*, Nora Ansoarena Irizar. Saria: opari txeketa eta komiki bilduma.

2. saria. *Izurdearen urtea*, Paula Zamarrionpa Ortiz. Saria: komiki bilduma eta marrazketarako materiala.

Aipamena. *Animalien abenturak*, Libe Bartolome Aguado. Saria: komiki bilduma.

Ibarako onena. *Gau Beltz beldur*

garria, Natale Gibelalde Aginagalde. Saria: Ibarako merkatarien oparia eta komiki bilduma.

9 urte arte

1. saria. *Arditurri altxorizkutua*, Martin Mujika Martinez. Saria: opari txeketa eta komiki bilduma.

2. saria. *Puntitoa*, Oinatz Mujika Aginagalde. Saria: komiki bilduma eta marrazketarako materiala.

Aipamena. *Hegaztiak*, Eki Mendizabal Azpeitia. Saria: komiki bilduma.

Ibarako onena. *Laia eta bere abentura*, Gema. Saria: Ibarako merkatarien oparia eta komiki bilduma.

*Saridun guztiak Xabiroi aldizkarira harpidetuko dira urtebetez.



ATARIA BERTSO JAIALDIA 2022

Oihana Iguaran
Maialen Lujanbio
Amets Arzallus
Andoni Egaña
Nerea Ibarzabal
Iker Zubeldia

Urtarrilak 22, larunbata,
18:00etan, Tolosako
Leidor antzokian

Gai jartzailea:
Amaia Agirre

Antolatzaileak:



Babesleak:




- Sarrerak zenbaituak izango dira eta ez da erreserbarik onartuko.
- Atariako egoitzan egongo dira salgai, San Esteban 20, Tolosa.
- Atarikideak 15€tan, gehienez bi sarrera.
- Besteek 17€tan.

SARRERAK EROSTeko EGUTEGIA:
Atarikideentzat: abenduak 21: 10:00 - 15:00
Gainontzekoentzat: abenduak 22: 16:00 - 19:00



«Zizurkilgo oilasko jokoaren inguruan egin dut, umore puntu batez erakutsita»

LIBE CARBALLO ARANBURU IRABAZLEA

I.S.A.

Lehen aldiz hartu du parte Galtzakomik lehiaketan Leire Carballo Aranburu donostiarrak. 17 urte ditu, eta adin horretatik gorakoen kategorian lehen saria eskuratu du.

Lehen aldiz hartu duzu parte. Nola izan zenuen lehiaketaren berri?

Nire institutuko irakasle batek ikasle guztioi bidali zigun lehiaketaren inguruko informazioa, eta parte hartzea erabaki nuen, ilustrazioaren munduan praktikatutako nahi nuelako. Eta komikiak egitea ere asko gustatzen zaidanez, aukera polita iruditu zitzaidan.

Eta zer aurkeztu duzu?

Oilasko jokoaren inguruan egin dut, umore puntu batez erakutsita. Amak txikitatik kontatu izan dit Zizurkilgo egiten zen oilasko jokoaren ohitura, gaur egun egiten ez dena, eta nahiko desatsegina egiten zitzaidanez, umorearekin landu nahi izan dut.

Nolako teknika erabili duzu?

Berez, ez zait gehiegi gustatzen testua sartzea. Baina baldintzetako bat zen euskaraz testua sartzea, eta elkarrizketa batzuk txertatu ditut. Koloreari dago-kionez, akuarelarekin jolastea asko gustatzen zait, eta guztia akuarelarekin egin dut.


Zein esperientzia duzu marrazten?

Txikitatik marraztu izan dut, zailtasun bat da niretzat. Iaz batxilergo artistikoa egitea erabaki nuen eta arte ederrak ikasi nahiko nituzke gero.

Sariarekin zer egingo duzu?

Afarira ama gonbidatuko dut, eta 700 euroak gorde egingo ditut oraingoz.

17 urtetik gorakoen mailan Libe Carballo Aranburu donostiarrak irabazi du lehen saria, 'Gaurko menua' lanarekin; Zizurkilgo oilasko jokoaren inguruan egin du komikia, umoretik; lan osoa akuarela bidez margotu du.



KIROL EMAITZAK

Areto futbola

BIGARREN B MAILA

14. jardunaldia	
Lauburu	5
Dehesa Villalba	3

Sailkapena

1. Tafa	36p
7. Lauburu Ibarra	19p
12. Dehesa Villalba	16p

Hurrengo jardunaldia

San Juan (3)
Lauburu (7)

HIRUGARREN MAILA

14. jardunaldia	
Sasikoa Durango - Laskorain	
Atzeratua	
Tolosala - Elorrioko	
Atzeratua	

Sailkapena

1. Afantxo	30p
2. Laskorain	29p
9. Tolosala	17p

Hurrengo jardunaldia

Laskorain (2)
Mondrate (8)
Eskoriatza (4)
Tolosala (9)

SENIOR MAILA

6. jardunaldia	
Ordizia	5
Lauburu Ibarra	0
Ama Teep Tolosala	2
Anoeta	5
Laskorain - Eskoriatza	
Atzeratua	

Sailkapena

1. Afantxo	12p
4. Anoeta	9p
5. Laskorain	9p
6. Ama Teep Tolosala	6p
9. Lauburu Ibarra	0p

Hurrengo jardunaldia

Laskorain (5) - Teep Tolosala (6)
Anoeta (4) Atsedena
Eskoriatza (3) - Lauburu Ibarra (9)

Eskubaloia

1. MAILA NAZIONALA

13. jardunaldia	
Ereintza Aguaplast	23
Tolosala Eskubaloia	25

Sailkapena

1. Arrate Eibar Eskubaloia	25p
5. Tolosala Eskubaloia	15p

Hurrengo jardunaldia

Tolosala Eskubaloia (5)
Ilcapo Hondarribia (4)

1. LURRALDE TXAPELKETA

10. jardunaldia	
Tolosa Eskubaloia	Atsedena

Sailkapena

1. Urnieta	16p
5. Tolosala Eskubaloia	12p

Hurrengo jardunaldia

Tolosala Eskubaloia (5) - Leizaran (3)
--

Futbola

HIRUGARREN MAILA

19. jardunaldia	
Santutxu	2
Tolosala CF	3

Sailkapena

1. Portugalete	40p
18. Tolosala CF	18p

Hurrengo jardunaldia

Beasain (3)
Tolosala CF (20)

1. MAILA NAZIONALA

11. jardunaldia (atzeratua)	
Tolosala CF	0
Real Sociedad B	0

Sailkapena

1. Bizkerre	32p
11. Tolosala CF	13p

Hurrengo jardunaldia

Tolosala CF (11) - San Ignacio (7)

ERREGIONAL OHOREZKO MAILA

14. jardunaldia	
Eibar	4
Tolosala CF	1

Hurrengo jardunaldia

Tolosala CF (13) - Urnieta (15)

GORENGO MAILA EMAKUMEAK

14. jardunaldia	
Intxurre	0
Elgoibar	3

GORENGO MAILA GIZONAK

15. jardunaldia	
Danena	1
Zumaiako	4
Billabona Atsedena	
Ostadar	3
Tolosala CF	3

Hurrengo jardunaldia

Danena (9) Atsedena
Mundarro (5) - Tolosala CF (3)
Hernani (8) - Billabona (10)

Saskibaloia

GIZONEZKOEN LEHEN MAILA

8. jardunaldia	
Redline Mekanika TAKE	84
San Cernin	57

EMAKUMEZKOEN LEHEN MAILA

9. jardunaldia	
Goierrri Ayma	53
TAKE	36

Hurrengo jardunaldia

Tabirako Baque (2)
Redline Mekanika TAKE (1)
TAKE (4) Atsedena



ESPAINIAKO BIERREKOR

Hegats Igeriketako Espainiako Federazioak antolatutako kontrol saioetan, estatu mailako bi errekor berri ezarri ditu Irati Lakunza igerilari tolosarrak: batetik, 400 metroko ur gaineko proban, 3.18,59ko denbora egin du; bestetik, 400 metroko eskafandra proban, 3.11,44koa. Kolonbian jokatu den Munduko Txapelketara joateko «aukera handia» duela adierazi dute bere prestatzaileek. ATARIA



FINALA ERABAKITA

Erabakita geratu da zein bikotek jokatu duten Antton Pe-beten Oroimenezko Txapelketako finala, urtarrilaren 2an. Amasa-Villabonako Bearzana pilotalekuan jokatu ziren bi finalerdiak: lehenengoan, Murua-Aizpuru bikoteak 22-5 irabazi zion Maiz-Elizegi bikoari. Bigarren finalerdia parekatua goa izan zen, baina azkenean Igoa-Arbizu bikotea nagusitu zen, 22-11, Uribe-Iztueta bikoaren aurka. ASIER IMAZ

Hilberriak eta urteurrenak



Antonio Gaztañaga Lopetegi

Abenduaren 17an hil zen, 69 urte zituela

Isilka joan zara, ezustean...Zure falta nabarituko dugu.

Zure lagun jubilatua

TOLOSAN, 2021eko abenduaren 21ean



Agustin Amonarriz Otaegi

- Goian Bego -

*Mundura zinen sortu Anoetan
Kukuen kantuarekin
Ta bidelagun izango zena
Aurkitu berriz Berrobin
Gizon alaia, eskuzabala*

*Beti umorez atsegin
Zenbat istori ta oroimen eder
Izan ditugu zurekin
Hutsune latza uzten diguzu
Aita, aitona Agustin*

TOLOSAN, 2021eko abenduaren 21ean

atarian jarrita Urola Kostako eta Goierriko Hitzetan DOAN

Eskelak orain merkeago!

TXIKIA (82mm X 64mm):	110 €	•	Harpidedunentzat	55 €
HANDIA (124mm X 64mm):	160 €	•	Harpidedunentzat	80 €
ESKERTZA (38mm X 64mm):	60 €	•	Harpidedunentzat	30 €

bez barne

ESKELAK • ataria@ataria.eus • Tel.: 943-65 56 95
Astelehenetik asteazkenera 18:30ak arte hartzen ditugu •
Ostegunetan 11:30ak arte hartzen ditugu

Regillaga eta Gurrutxaga izan dira garaile Zizurkilgo Gau Krosean

Aitor Regillaga tolosarrak 22.48ko denbora egin zuen, eta Maialen Gurrutxaga andoaindarrak 27.30ean amaitu zuen

Erredakzioa Zizurkil

Zizurkilgo Kirol Astearen barruan, Gau Krosaren XXIV. edizioa jokatu zen larunbatean. 7 kilometroko lasterketa izan zen, eta gizonezkoetan, Aitor Regillaga tolosarra (22.48) izan zen azkarrena; emakumezkoetan, berriz, Maialen Gurrutxaga andoaindarra (27.30). Regillagaren atzetik, Eneko Garin billabonatarra (22.51) eta Julen Azkue tolosarra (22.55) helmugaratu ziren. Gurrutxagarekin batera, Aitana Amundarain (28.34) eta Nagore Azkue (28.36) tolosarrek osatu zuten podiuma. Dinosaurio saria, korrikalari zaharrenarena, Jaber Gallorentzat izan zen.

Egungo osasun egoeragatik ezarritako neurrien ondorioz, beste urteetan baino lasterkari gutxiagok hartu zuten parte aurtengo edizioan; hala ere, urteroko giro epela nabaritu zen. Lasterketa hasi aurretik, minutuko isilunea egin zuten Ibontxo Gonzalez omentzeko. Txokolatea eta gailetak banatu zizkieten korrikalari eta ikusleei, musikaz girotu zuten festa handiko ganean.

INDAR ERAKUSTALDIA

Igandean eman zioten amaiera Kirol Asteari. Denok Danena Halterofilia taldeko pulstulariek txapelketa bat jokatu zuten Joxe Arregi plazan. Gerturatutako herritarren animoei esker, euren markak hobetzeko aukera izan zuten.



Beotibar pilotalekuan jokatu zuten bosgarren jardunaldiko azken partida. J. A.

Porrot bana eskualdeko lau pilotarientzat, binakakoan

Eskuz Binakako Txapelketako bosgarren jardunaldian, Altuna III.ak, Peña II.ak, Tolosak eta Jakak ez dute irabaztea lortu; Elizegi bikain ari da promozio mailakoan

Josu Artutxa Dorronsoro

2021eko Lehen Mailako Eskuz Binakako Txapelketa ez da bate-re ona izaten ari eskualdeko pilotarientzat. Bosgarren jardunaldian laurek galdu dute, eta une honetan, sailkapeneko azken lau postuetan daude.

Atzo eman zioten amaiera bosgarren jardunaldiari, Tolosako Beotibar frontoian. Bertan, Jakak eta Mariezkurrenak, Irribarriaren eta Rezustaren aurka jokatu zuten. Lehen tantoetan, Aspeko bikoteak ezarritako erritmoaren aurrean ezinean aritu ziren Baikokoak. Gero, ordea, mar-

kagailua iraultzea lortu, eta abantaila txikia zabaldu zuten: 12-7. Bigarren atsedenaldiaren aurretik, bazirudien amaiera parekatua izango zuela partidak, bi berdinketa izan zirelako: 15-15 eta 16-16. Amaieran, Irribarria ondo eta Jaka kamuts aritu ziren. 22-16 amaitu zen partida.

Altuna III.ak ostiralean jokatu zuen, Urdulizen, Martijarekin bikotea osatuz, Urrutikoetxearen eta Arangurenen aurka. Hasi eta buka, jaun eta jabe izan ziren Baikoko pilotariak. 6-0 aurreratu ziren, eta Aspeko bikotea bi tantora gerturatu bazen ere, 22-4koa izan zen azken emaitza; amezke-

tarrak, beraz, ezin izan du garai-pena lortu kantxetara itzuli den asteburuan.

Larunbatean, Peña II.aren txanda izan zen. Albisurenkin batera, Elezkano II.a-Zabaleta bikotearen aurka neurtu zituzten indarrak, Iruñeko Labrit pilotalekuan. Ostiralekoaren aldean, erabat ezberdina izan zen partida. Baikoko pilotariek estu eta larri ibili zituzten egungo txapel-dunak; amaieran, tolosarrak eta ataundarrak aukerak izan zituzten garaipena lortzeko. Baina azkenean, 22-21 nagusitu zen Aspeko bikotea; Peñak txapara bidali zuen azken pilotakada.

Igandean, Xabi Tolosaren txanda izan zen. Anoetarrak, Ezkurdiarekin batera, ezin izan zuen txapelketako bigarren garaipena lortu. Laso-Imaz bikotea izan zuten aurrean, eta partida hasiera parekatua izan bazen ere, bi atsedenaldietara alde handiarekin heldu ziren Baikokoak: 12-5 eta 18-9. Amaieran, 22-13 nagusitu ziren.

Aste honetan jokatuko dituzte seigarren jardunaldiko partidak, eta tartean bi derbi izango dira. Larunbatean, Ezkurdi-Tolosa eta Jaka-Mariezkurrena II bikoteek elkarren aurka jokatuko dute, Iruñeko Labrit pilotalekuan. Igandean, berriz, Altuna III.ak eta Martijak, Peña II.a eta Albisu izango dituzte aurkari, Bilboko Bizkaian.

TXANPONAREN BESTE ALDEA

Une gozoagoa bizitzen ari dena Iker Elizegi asteasuarra da. Baikaikoarekin batera, Promozio Mailako Binakako Txapelketako partida guztiak irabazi ditu: bostetik bost. Larunbatean, Labriten jokatu zuten partida, Zabala-Oier Etxeberria bikotearen aurka eta 22-16 irabazi zuten. Larunbatean, Eguberri egunean, jokatuko dute hurrengo jardunaldiko partida, berriz ere, Labriten. Kasu honetan, Egiguren V.a eta Untoriaren aurka neurtuko dituzte indarrak.

Jokin Eizmendi garaile, Euskal Herriko Harri Handien Txapelketan

Asteasun jokatu zen finala; Iñigo Eizagirre 'Eiza' eta Jon Unanue 'Goenatxo III.a' izan ziren bigarren eta hirugarren

Jon Miranda Asteasu

Larunbatean jokatu zen Euskal Herriko Harri Handien Txapelketako finala, Asteasun. Lau harri jasotzaile ziren aritzekoak, baina Aimar Galarragaren hutsunea tarteko, hiruk jardun zuten Lege Zaharren plazan jokatu zen finalean: Jokin Eizmendik, Iñigo Eizagirrek *Eizak* eta Jon Unanue *Goenatxo III.ak*.

Lan mardula egin behar izan zuten hirurek, harri bakoitzarekin, hiru minutuko txandatan. 200 kiloko errektangularra 8 aldiz jaso zuen Eizmendik, 5 aldiz Eizak, eta 6 bider Goenatxo III.ak. 175 kiloko zilindrikoa 10 aldiz jaso zuen Eizmendik, 7 bider Eizak eta 8 aldiz Goenatxo III.ak. 150 kiloko kubikoa, 12 aldiz jaso zuen Eizmendik, 10 bider Eizak, eta 9 aldiz Goenatxo III.ak. Azkenik, 125 kiloko bola 14 aldiz jaso zuen Eizmendik, 12 aldiz Eizak, eta 9 bider Goenatxok.

Honenbestez, 6.900 kilo jaso-ta, Jokin Eizmendi izan zen garaile eta berak jantzi zuen Euskal Herriko Harri Handien 2021eko txapela. Harri jasotzaile zaraiz-tarrak laugarren aldiz jantzi zuen txapela, 2014an, 2015ean eta 2018an ere irabazi baitzuen txapelketa. Nagusitasun osoz gailendu zen Eizmendi, bigarren sailkatu zen Iñigo Eizagirre Eizak eta hirugarren izan zen Jon Unanue Goenatxo III.ak, 5.225 eta 5.075 kilo jaso baitzituzten, hurrenez hurren.

Olentzero eta Mari domingiren puzgarriak
Ibarrako San Bartolome plazan izango dira
abenduak 28an.

(11:00-13:00 eta 15:00-18:00)





ASTEARTEA, 2021EKO ABENDUAK 21
Argitaratzailea:
Tolosaldeko Komunikazio Taldea SM
Lege Gordailua: SS-1323-2013
Koordinatzailea: Rebeca Calvo Gonzalez
Kudeatzailea: Iban Urdapilleta Alkizaletxe
Egoitza: San Esteban, 20, Tolosa.
Telefona: 943 65 56 95.
E-posta: ataria@ataria.eus
Publizitatea: 661678 818. publi@ataria.eus

Tolosa: 687 410 082. tolosa@ataria.eus
Villabona-Aiztondo: 687 410 022.
villabona-aiztondo@ataria.eus
Anoetalea: 687 410 022.
anoetalea@ataria.eus
Ibarralea: 687 410 118. ibarralea@ataria.eus
Alegialdea: 687 410 034.
alegialdea@ataria.eus
Kirolak: 673 06 1132. kirolak@ataria.eus
Bezere arreta zerbitzua: **943 30 43 46**



Ataria.eus

ATARIA IRRATIA
107.6 FM

Tolosaldeko Ataria diruz laguntzen duten erakundeak:
Udalak: Abaltzisketa, Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Amezketa, Anoeta, Asteasu, Ballarain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Bidania-Golatz, Elduain, Gaztelu, Hernialde, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Larraul, Leaburu-Txarama, Lizartza, Orendain, Oresa, Tolosa, Amasa-Villabona eta Zizurkil

Tolosaldeko Komunikazio Taldea SMko kideak:



ASTEARTEA 21

AGENDA

Deialdiak

Bidania-Golatz. Saiatz mankomunitateko emakumeen indarkeriaren kontrako protokolo parte hartzailea, Txinkorta eskolan, 18:00etan.

Tolosa. Irakurketa Kluba gaztelaniaz. Tierra de mujeres lana aztertuko dute, 18:00etan, liburutegian.

Tolosa. Nerea Garmendiaren *Con taras y a lo loco* bakarriketa, Topicen, 19:00etan.

Tolosa. Isidro Larrañaga akordeoi orkestraren eguberrietako kontzertua, Leidorren, 19:00etan.

Tolosa. Olentzeroren basoa, Elosegiparkean. Izen ematea, *Zumardia.eus*-en.

Zizurkil. Teodoro Hernandorena XX. Ipuin Lehiaketako sari banaketa, Atxulondon, 17:30ean.

ATARIA IRRATIA

09:00. Pasahitza. Asier Imazek gidatutako magazina: Iker Ibarluzearen eguraldi iragarpena, eskualdeko berriak, kolaboratzaileen tarteak...

15:00. Letren errepublika. Literaturari buruzko saioa.

16:00. Zebraidea. Magazina.

20:00. Haimarren saioa. Kirolean parekidetasuna.

28 KANALA

08:00. 1, 2, 3 hemen da Miru!

11:30. Gaurkoan Tolosaldeetik

13:30. Gaurkoan Tolosaldeetik

19:00. Elkarriketap

21:30. Gaurkoan Tolosaldeetik

22:00. Bixi ibili!

FARMAZIAK

Gaur

TOLOSA. Egunekoa. Oscar Etxe-beste Etxarri. Gernikako Arboren Lorategiak, 3. 943 65 10 40.

TOLOSA. Gauekoa. Lourdes Azpiroz Galarza. Larramendi kalea, 6. 943 67 5118.

EGURALDIA

IKER IBARLUZEA



Gaur. Giro epela izango dugu. Zeruian aurreko egunetan baino hodei gehiago agertuko da. Batez ere, erdi eta goimailako hodeiak izango dira, baina ez dute inolako ondoriorik ekarriko eta eguraldi eguzkitsua izango da. Hego-haizea ibiliko zaigu eta tenperaturak gora egingo du, balio epelatan kokatuz, non 16-17 graduan joko duen goia eguneko erdiko orduetan.




Bihar. Eguraldi eguzkitsua izango dugu. Zeruian egun osoan zehar erdi eta goimailako hodeiren bat edo beste agertuko bada ere, ostarteak zabalak izango dira eta beste egun batez jarraian eguraldi ederra izango dugu. Hego-haizeak indarra hartu eta tarteak zakar joko du. Tenperatura antzeko balioetan mugituko da, 16-17 graduan joz goia.

TOLOSALDEKO ATARIAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanenen eta iritzien erantzukizunik.

Bolatoki berria zabalik dute Belauntzan

Herenegun inauguratu zuten bolatoki estali berria; kirola bultzatzeko asmoz hainbat proiektu jarriko dituzte martxan



Herenegun hainbat herritar gerturatu ziren bolatoki berria estreinatzeraz. LEYRE CARRASCO

Leyre Carrasco Belauntza

Kirola bultzatzeko asmoarekin hainbat proiektu abiatu dituzte Belauntzan, eta horietako bat da igandean inauguratu zuten bolatoki berria. Aldai baserriko zelaian eraiki dute, eta hainbat herritar gerturatu ziren lehen partidak jolastera.

Belauntzako hirugarren bolatokia da. Lehena Benta jatetxe

parean zegoela gogoratu du Ramon Lopetegi herritarrek: «Sanjoanetan soilik jolasten genuen, baina bertan taberna zegoenez, tarteka hainbat ardo jokatu eta hor egiten genituen tiraldiak».

«Mimo handiz» eraiki duten proiektua izan dela azaldu du Lopetegik. Eskualdean estalita dagoen lehen bolatokia da Belauntzako, eta hori garrantzitsua da txapelketa federatuak jo-

katu ahal izateko. «Segurako eta Idiazabalgo hainbat aditu etorri ziren pista txukun eraikitze».

Bolatoki berriak ez ezik, herriko futbol zelaia eta frontoiak ere etorkizun berria izango dutela aipatu du Iñaki Telleria alkateak: «Kirolaren inguruan talde-lana bultzatzeko asmoa dugu, egun herrian ditugun baliabide berriak baliatuz eta gure herriari bizia emanez».



HEMEN DA BERRIZ
ERE HOSTOREZKO
BIXIGU
TRADIZIONALA
RAFA GORROTXATEGIEN
ERARA EGINDA



943 89 03 06 | www.rafagorrotxategi.eus



Tolosan salgai:

Rafa Gorrotxategi
Obradorea:
Usabal Poligonoa, 14

Denda:
Korreo Kalea, 17
(Malumbres jostun denda)